



## ADENOIDEKTOMIA (BEGETAZIOAK)/MIRINGOTOMIA ETA DRENAJEAK (BELARRIAK) OPERATU ONDOKO ZAINKETAK ETA AHOLKUAK

- ❖ Komeni da likido hotzak hartzea (ura, zukuak, esnea, fruten irabiatuak, etab.).
- ❖ Afari arin eta hotza egin (jogurta, izozkia, petit-suisse, salda, purea, etab.).
- ❖ 3 egunetan dieta biguna egin, epela edo hotza (pureak, flana, jogurta, moldeko ogia, natillak, tortilla, fruten irabiatuak). Hortik aurrera zure betiko dieta egiten hasi.
- ❖ 2-3 egunetan nolabaiteko atsedena egin (ez da beharrezkoa ohean egotea).
- ❖ Operaziotik 4-5 egunera eskolara joaten has zaitezke.
- ❖ Ebakuntza ondoreneko 15 egunetan ez du egin behar ahalegin fisiko gogorrik: bizikletan ibili, futboleko jolastu, salto egin, lasterka egin, eta ez da joango ikastetxeko Gorputz Hezkuntzako eskolara.
- ❖ Eguzkitan gutxi egon.
- ❖ Belarrietatik operatu bazaituzte, ez busti hauek hurrengo azterketetan medikuak (ORL) esan arte.
- ❖ Ondorengo egunetan tenperatura hartu, goizean eta arratsean.
- ❖ Medikaziorik errezetatu badizute, har ezazu altan adierazi bezala.

### ZATOK LARRIALDIETARA HURRENGO KASUETAN:

- ➡ Belarrietatik, sudurretik edo ahotik odola botatzen baduzu.
- ➡ Lasaigarriak hartu arren, mina desagertzen ez bada.
- ➡ 38°ko sukarra baldin badaukazu, edo altuagoa.
- ➡ Behin eta berriz gorakoa baduzu.